


**Literatura**

*Piztiak*  
Miguel Torga.  
Itzultzailea: Bego Montorio.  
Alberdania, 1997



## Erreparatuko bagenie

HARA: “Vilarinhoko biztanle guzti-guztientzat, salbuespenik gabe, gauak gau ziren; iluntasuna besterik ez. Eta egunak are okerrago, argitasuna gorabehera. Aberats nahiz pobre, ez zioten ez eta eguzkiaren distirari erreparatzen. Jan egiten zuten, edan, eta ildoak ireki, kondenatutakoen egonarriaz”. Ai, alabaina, erreparatu izan balioite gauari, egunari, eguzkiaren distirari, erreparatu izan balioite aurre-aurrean zutenari, Miguel Torgak erreparatu bezala, ikusiko zuketen izan badela besteren artean piztia saldo bat, piztia gordin, goxo, anker, hunkigarri saldo bat. Luze gabe, *Piztiak* honetan bildutako horiek guztiak.

Ez dakit zergatik, animaliak literaturan haurrentzako bazka izan ohi dira. Gizajendearen trasunto onbera, zuri, kalterik gabeko izateko, edo, kasurik onenean, ume koitaduak beldurrez akabatzeko. Aitzitik Torgarenak, Bego Montorio itzultzaileak hitzaurrean gaztigatu gisara, ez dira Disney faktoriako piztia melengen abenturen parekoak. Piztia horiek asko, gehiegi gogorarazten dizkigute hezurharagizko gizon-emakumeak: eperrek, esate batera, “intzirika, pertsona ahotsa izaten zuten kasik, erruki eske”; aurrerago, ardia, “hasi zen marraka eta marraka, ume batena zirudien etsipenaz”. Hainbeste non, hankabiko nahiz lauoineko, piztieria guztia gertatzen zaigun azkenerako etxeko: Nero, Mago, Premu, Soraio, ispiluan agertuko

zaizkigu geure burua bertan begiratzera ausartzen garenetan. Txitxarra kexu da, baina berdin beharko genuke guztiok: “Lan egitea patua balitz bezala!”. Haren aldarria egin beharko genuke gure lelo: “Kantatzea bizitzan sinestea eta heriotza gainditzea dela”. Eta orain artekoak gutxi balira gainera, Miura zezanak eskainiko digu zezenketak benetan maite ditugunok beti amestu dugun korrida: torea-tzailea adarkatua suertatzen dena.

*Piztiak* bildumak, 1940an lehen aldiz argitaratua, askoren ustez mugarrria ezarri zuen Portugalgo ipuingintzan. Pertsonalki iruditu zait gogoangarri. Eta, ondorioz, harrigarria nolaz ez duen Torgak gurean izan itzulpen gehiago, pitxi honen ondotik, beste batzuek izan duten moduan. Montorio berriz –eta bide batez, itzulpena da kategorikoa–: aje zaharra, zoritxarrez, portugesezko literatura urrunekotzat jotzearena. *Piztiak* dugu, behintzat, beste gaixotasun gaiztoagoren baten aldean, luso-patian erortzeko modukoa. Eta azkenerako, ondorio gisara: ai, erreparatuko bagenio gauari, egunari, eguzkiaren distirari, erreparatuko bagenie Miguel Torgak egin bezala piztia bat eta bakoitzari. Ipuin liburu honen moduko literatura gozagarri gehiago izango genuke hartara, eta besterik ez bada. ■

**Aritz Galarraga**



**1 irakurri** **2 hautatu** **3 erabili** **4 eman iritzia**